

Osoko bilkura

Baionan, Paueko eta Aturri Herrialdeetako
Unibertsitatea, Baionako Campusa.

2015eko ekainaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailbu-
rua,

Arkotxa, Aurelia,
Davant, Jean-Louis,
Iñigo, Andres,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun,
Mujika, Alfontso eta
Urkia, Miriam,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren
Azkaratek ahala Miren Lourdes
Oñederrari; Patxi Goenagak ahala

Miren Lourdes Oñederrari; Jose Irazu
«B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari;
Jabier Kaltzakortak ahala Andres
Urrutiari; Joseba Lakarrak ahala Mi-
ren Lourdes Oñederrari; Patxi Sala-
berrik ahala Andres Urrutiari; Joan
Mari Torrealdaik ahala Andoni Sa-
garnari; Mikel Zalbidek ahala Andres
Urrutiari.

Osoko bilkura Baionan, Paueko eta
Aturri Herrialdeetako Unibertsitatea
Baionako Campusean hasi da, goizeko
10:00etan, ezkerreko zutabeen ageri
diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guz-
tiak agurtu eta etorririkoen zerrenda
eta berorien ahalak irakurri ditu, eta
quoruma badela egiaztatu ondoren,
Euskaltzaindiaren ekaineko Osoko ba-
tzarrari hasiera eman zaio.

**1. Osoko bilkurako (2015-05-29)
bilera-agiria onartzea, hala erabakiko
balitz.**

Bilkuraren behin-behineko bilera-agiria gaur banatu denez, aztergaia hurrengo Osoko bilkurarako utzi da.

2. Ageriko bilkuretako (2015-01-30 eta 2015-3-27) bilera-agiriak onartzea, hala erabakiko balitz

A. Iñigo eta J. L. Lizundia euskaltzain osoek egin dituzte oharrak. Lehenbizikoak ortografiaren aldetik zuzenketa txiki batzuk egin ditu. Denak onartu dira.

Bigarrenak, urtarrilaren 30eko Ageriko bilkurako bilera-agiriaren 5. orrialdean, Xabier Aranburu euskaltzain urgazle zenduaren aipamena egitean, hilberri txostenean aipaturiko «Euskaltzaindiak Iruñean (1984) egin zuen X. Biltzarreko prentsa bulegoko arduradun» esaldia bilera-agirian gehitzea proposatu du. Onartu da.

Gauzak horrela, eginiko oharrak gehitu ondoren, aurkezturiko Ageriko bilkuretako bilera-agiriak onartu dira Osoko bilkuran.

3. Exonomastika

3.1. Kanpoko herritar-izenak sortzeko irizpideen dokumentu osatua. Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki. Alfontso Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria batzar aretora sartu da eta bilduak agurtu ondoren, eguneko gaiak jorratzen hasi da. Lau ohar jaso direla adierazi du, hiru Miren Lourdes Oñederrak aurkeztuak eta beste bat, ahoz, Patxi Goenagak aurreko Osoko bilkuran egina.

M. L. Oñederrak eginiko lehenbizikoa *vienar* hitzari buruzkoa izan da, oinarrizko herri-izena (*Viena*) euskal hiztunen ahoskatzeko ohituren arabera hiru silabatan edota bi silabatan ebaki daitekeelako, eta, beraz, eratorriak bai *vienar* eta bai *vienatar* izan daitezkeela adierazi du. Erantzunean A. Mujikak azaldu dio *vienar* forma aspaldian arautua dela eta hiru silabakoen artean sailkaturik dagoela, baina horri nahasgarri baldin baderitzo, batzordeak ez duela eragozpenik, adibideen artetik hitz hori kentzeko. Hortaz zerrendatik *vienar* adibidea kendu da. Bigarren oharrean, «hala eskatzen du euskararen fonetikak» pasartearen ordez, «hala eskatzen du euskararen fonologiak» jartzeko eskariarekin Exonomastika batzordea bat datorrela adierazi da.

Hirugarren oharrean, *Irkuts-ar* eta *metz-ar* bezalakoetan marrak hitzari itxura arraroa ematen diola eta marrarik gabe idatzi dadin proposatzen du.

Alfontso Mujikak esan du *irkustar* eta *meztar* formetan erabateko adostasuna dagoela. Eztabaida, izatekotan *irkutsar metzar* ala *irkuts-ar*, *metz-ar* formen artean dagoela. Marratxodun aldaera ez zen batzordearen hasierako proposamena, baina

txostena Osoko bilkuran aurkeztu zenean norbaitek horixe proposatu zuen, toponimoa ezezaguna bazen eta bera desitxuratzeko arriskua bazegoen, marratxo eta guzti idaztea beste aukera bat zela argudiatuz. Exonomastika batzordeak ez du horretan iritzirik eta Osoko batzarraren esku uzten du.

Txomin Peillenek adierazi du aurreko Osoko bilkuran aurkeztu dokumentuko 10. orrialdean *-ts* bukaeradun gisa eta 11.ean oin-ohar gisa azaltzen den *Irkuts* ez dagoela ondo, toponimoa *-k* batez amaitzen baita.

B. Oihartzabalek izen arrotzak, deklinatzean edo atzizkiren bat eransten zaizenean, marratxoarekin argiago gelditzen direla esan du. X. Kintanak arrazoa eman dio, baina, era berean, esan du izen arrotz bat pasarte edo liburu osoan zehar maiz agertzen denean, aski dela hasierako aipamenetan marrarekin jartzea hitzaren egiazko amaiera zein den argitzeko, idazki osoan zehar gauza bera errepikatzen ibili gabe.

Tx. Peillenek *-tzar* bukaera belarrirako peioratiboa dela dio, eta ahal izanez gero, hori saihestea eskatu du. J.-B. *Battittu* Coyosek ez luke salbuespenik egingo. A. Iñigo erabiltzaileei gauzak errazteko, era horretako izen guztiak berdin ipintzearen alde mintzatu da. P. Uribarrenek ere forma bakarrak hobetsiko litzuzke. Azkenean, marratxorik gabeko formak hobestea erabaki da.

3.2. «Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Izen germanikoak. Irizpideak eta pertsona izenen zerrenda» araua. Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki. Ondoren, maiatzeko Osoko bilkuran batzordeak aurkezturiko txostenean «Jatorri germanikoko pertsona-izenak» izenburua dela eta, P. Goenagak galdera bat egin zuen horko kakofonia saihesterik ez ote zegoen. Exonomastika batzordearen ustez hor ez dago arazo gramatikalik, eta etsenplu asko jarri ditu A. Mujikak *-koko* bukaerekin (*alde askokoa, lapikokoa, administrazio publikokoa, sistema periodikoko lehen taldekoka, Eliza Katolikoko santuak, musika klasikoko orkestra sinfonikoa* eta abar). Baina kasu honetan beste aukera bat ere badenez (*germaniar*), P. Goenagak aipatu zuen kakofonia saihestearen, araugaiaren izenburua honela izatea proposatzen du: «Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Germaniar jatorriko pertsona-izenak». Horrela hobetsi da.

Araugaiari buruz bestelako oharrik egin ez zaionez, bere horretan onartu da.

4. *Hiztegi Batua* 2. itzulia

4.1. Zerrenda osagarriak (izen propioetatik eratorriak eta *-(t)ar* osaera-koak). Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki (jarraipena). A. Sagarna eta

M. Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradunek aurrekoan eskuartean erabiliriko txostenaren hemezortzigarren orritik hogeita batgarren orrira artekoak oinarritzat hartu eta oharrezaturiko hitzak aztertu dituzte euskaltzainek. Azken sail honetan lantaldeak baztertzeko edo eztabaidarako utzitako formak jaso dira eta proposamen gehienak onartu dira.

Salbuespenak dira lantaldeak isiltzea proposatutako *stradivarius* eta *tubalismo* formak, ontzat eman baitira Osoko bilkuran. Eta besterik gabe onartu da 174. arauak onartu berri duen *suebo* forma (eta, ondorioz, *suabiar* isiltzea erabaki da). Bestalde, zalantza zegoen bi kasuetan, *baldakino* eta *galileotar* formetan, hain zuzen ere, hurrengo itzulirako uztea, eta azken forma, fisikariei galdetzea erabaki da. Horiekin batera, *-tar* osaerakoak aztertzean berrikusteko utzi da *sodomar*. Eta Onomastika eta Exonomastikarentzat utzi dira *alaui*, *bahaista*, *bolivarista*, *bordeles salda* (*bordeles* oinarria jaso gabe baitago oraindik), *italiko*, *kamita*, *mahometismo* (oinarria erabaki gabe dago), *paulownia*, *transandetar* eta *transiberiar* (*siberiar* jaso gabe dago).

Lantaldeak isiltzeko proposatuekin bat etorri dira euskaltzainak: *sibaritiko*, *solezismo*, *stoke/stokes*, *stromboliar*, *suarismo*, *suarista*, *subatlantiko*, *svano*, *talmudista*, *toskano*, *unbriko* [174. arauak *umbriar* forman arautua], *vulkaniar*, *wronskiar*, *zelotismo*, *zeltismo*, *zeltista* eta *zesaropapismo*. Eta eztabaidarako aurkeztutako *bizkaitarrismo* eta *bizkaitarrista* isiltzea erabaki dute. Honenbestez, aztergaia bukatutzat eman da.

Ondoren, *-tar* osaerakoak zerrenda aurkeztu da. Azken honi ez zaio oharririk egin eta, beraz, forma asko utzi dira 3. itzulirako edo Onomastika/Exonomastikarako. 453 forma zeuden lehendik arautuak eta oharririk gabeak, eta beste 41 formari informazioa gehitzea onartu da. Lantaldeak proposatutakoen arteko forma batzuk oraingoz ez biltzea erabaki da, Exonomastika batzordearen «Kanpoko leku-izenen dagozkien herritar-izenak eta izenlagun erreferentzialak sortzeko irizpideak» dokumentuaren argitan erabaki ahal izateko (33 forma). Beraz, 56 forma besterik ez dira onartu, horietako batzuk 174. arau berriak jasoak. 477 forma isildu egin dira, 25 3. itzulirako utzi. Eta «afro-amerikar» saileko 98 forma gehi Onomastikarentzat uzteko beste 78 ere isildu egin dira aztergai honetan. Forma horiek guztiak Xabier Kintanari helaraziko zaizkio, horien azterketa bidera dezan.

4.2. Aroak. Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki. Sail honi dagozkion 14 forma lehendik arauturik daude, eta hiru forma informazioa gehitzeko aurkeztu dira. Hiztegi Batuko lantaldeak ontzat emandako 23 forma eta isiltzeko proposatutako beste 71 bere horretan onartu dira. Ondoren, oharren bat jaso duten 31 formak aztertzeari ekin diote euskaltzainek. Lantaldeak proposatutako «aldi»ak onartu dira,

apozizio gisa bereiz idatzita (*Acheul aldi*, *Aurignac aldi*, *Azil aldi*, *Madeleine aldi*, *Moustier aldi*, *Périgord aldi* eta *Solutre aldi*) eta, ondorioz, *aurignactar*, *madeleinetar* eta *moustertar* eratorriak isildu egin dira. *Izotzaldi* gisa jasota zeudenak *glaziazio* forma arautu zehatzagoan jaso dira, *Geol.* markarekin (*Riss glaziazio* eta *Würm glaziazio*).

Aroetan, lehendik arautuez gain, *Aro Garaikide* eta *Metal Aro* jaso dira, *aro paleolitiko* isilduz. Eta *Aro Moderno* onartuaren osagarri gisa, *moderno* sarrerari adiera berria gehitzea onartu da, *Aro Modernoa* adibidea gehituta, baina ez da *Era Berri* sinonimo gisa proposatua jaso. *Erdi Aro goiztiar* eta *Goi Erdi Aro* sinonimotzat hartuz batetik, eta *Erdi Aro berantiar* eta *Behe Erdi Aro* bestetik, *Erdi Aro* azpisarrera arautuaren adibide gisa onartu ditu Osokoak. *Goi-paleolitiko* isildu egin da (*goi-paleolito* aski delakoan) eta, aldiz, *erdi-paleolito* onartu egin da. Erak edo eratemak aztertu dira ondoren, eta *era primario*, *era sekundario* eta *era tertziario* onartu egin dira, eta *primario*, *sekundario* eta *terziario* forma arautuei *Geol.* adiera gehitzea adostu da. B. Oihartzabalek gramatikan ez dutela *sekundario* forma onartu eta hori adierazteko euskarak bestelako aukerak izan ditzakeela nabarmendu du. X. Kintanak berak ere, geologiarako *lehendar*, *bigarrendar*, *hirugarrendar* formak erabili izan dituela gaineratu du, proposatuei erdal kutsu nabarmenedia aurkituz. *Era kuartemario* proposatua, aldiz, ez da era, periodoa baizik. Beraz, *periodo kuartemario* jaso da, horretarako *periodo 2* eta *kuaternario* sarrera berriak sortuz. *Arkaiko*-ren ordeztu *Arkear* (eta *era arkear*) 3. itzulirako uztea erabaki da. Eta *kanadiar* isiltzea erabaki da.

Azken forma hori aztertu ondoren, 5. orritik aurrerakoak hurrengo Osoko bilkuran aztertzeke laga dira. Halaber, Hiztegi Batuko lantaldeak aroen taula osatua hurrengo Osoko bilkurarako ekartzeko konpromisoa hartu du.

5. XIX. Barne Jardunaldiak. Jarraipena

E. Osa idazkariordeak Euskararen Historia Sozialaren txostena aurkezteke zela iragarri du, baina egitasmoaren zuzendariak etortzerik izan ez duenez, gaia hurrengorako utzi da.

6. Euskaltzain urgazleak izendatzeko deialdia egin: Araba

A. Urrutia euskaltzainburuak jakinarazi duenez, euskaltzain urgazleak izendatzeko Osoko bilkurak ezarritako prozedura kontuan hartuz, Zuzendaritzaren ekimenez, Araban bizi diren euskaltzain osoekin (M. L. Oñederra, B. Atxaga eta J. Lakarra) eta, Barne-erregelen arabera (4.2 xedapena), Araba ordezkatzeko duen euskaltzain osoarekin (P. Uribarren) bilkura egin da, 2015eko ekainaren 16an. E. Osa idazkariordeak, jasotako bilera-agiria irakurri du.

Bilkura horretan bildurikoek segidan datozen sei pertsona hauek urgazle izateko proposatzea adostu dute –P. Goenagak bilerara hurreratzetik izan ez bazuen ere, idatziz proposamenarekin bat egiten duela adierazi du–:

IZENA	ABIZENAK	AURKEZPEN LABURRA
RICARDO	ARREGI DÍAZ DE HEREDIA	Gasteiz (1958). Salamancan Psikologia eta Irakasle ikasketak egin zituen. Euskal Filologian lizentziaduna. Idazlea.
ROBERTO	GONZÁLEZ DE VIÑASPRE GONZALO	Bilbo (1961). Trebiñu Konderrian bizi da. Euskal Filologian lizentziaduna. Onomastika batzordekidea. Onomastikari buruzko hainbat azterlan.
KARMELE	JAIO EIGUREN	Gasteiz (1970). Informazio Zientzietan lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean. Kazetaria eta idazlea.
IÑAKI	MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA	Gasteiz (1950). Soziologian doktorea. HIZNETen zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen zuzendaria (1986tik). EABko kidea. Soziolinguista.
PATXI	SALABERRI MUÑO A	Aramaio (1956). Euskal Filologian doktorea. UPV-EHUko irakaslea. Gasteizko Irakasle eskolako zuzendaria (1997-2000). Euskal literatura klasikoan aditua (XVI eta XVII. mendeetako idazleak eta obrak ditu aztergai nagusi). Liburuez gainera, hamaika artikulua ditu argitaraturik.
BLANCA	URGELL LÁZARO	Gasteiz (1962). Irakaslea eta filologoa da. Euskal Filologian doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra (2002tik). <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> lan egindakoa. MLV ikerketa taldeko kidea da. Lexikografian aditua.

Zerrenda gaur aurkeztu da, zuzendaritzako kideen, Araba ordezkatzan duen euskaltzainaren eta Araban bizi direnen adostasunarekin eta Arautegiaren 3., 38., eta

Barne-erregelen 6. artikuluetan jasorikoa kontuan hartuz. Horregatik, bozketa hurrengo Osoko bilkuran egingo da. Halaber, beste norbait proposatu nahi izanez gero, gutxienez bi euskaltzain osoen adostasuna ezinbestekoa dela gogorarazi da.

7. Esku artekoak

7.1. *Hiztegi Batuko lanak aurreratzeko asmoz, uztailean Osoko bilkura egiteko, Hiztegi Batuaren eta Euskaltzaindiaren Hiztegiko arduradunen eskaria.* Ekainaren 15ean, A. Sagarna eta M. Urkia Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arduradunek, euskaltzainburuari gutun bat bidali diote eskatuz, aurtengo uztailean, Osoko bilkura deitu dadin. Horren bidez, *Hiztegi Batuaren 2.* itzuliko aurtengo lanak aurreratzea eta 2016an Euskaltzaindiaren Hiztegia gizarteratzeko finkaturiko helburua ziurtatuko litzateke. Zuzendaritzak eskari hori jaso eta ontzat hartu zuen. Gauzak horrela, euskaltzainburuak galdetu du ea eskaria Osoko bilkurak onartzen duen. Deialdia egiteko adostasuna egon denez gero, *Hiztegi Batuaren 2.* itzuliko gaiak jorratzeko, bai eta euskaltzain urgazleak izendatzeko ere, uztailaren 17an, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, goizeko 10:00etatik aurrera Osoko bilkura egingo da.

7.2. Manuel Lekuona Saria 2016. Eusko Ikaskuntzak urtero ematen duen Manuel Lekuona sarirako hautagaiak aurkezteko epea zabaldu du. Epea uztailearen bostean amaitzen da. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Joan Mari Torrealдай euskaltzain osoa eta bibliotekari akademikoa aurkeztea proposatzen du, 2015eko ekainaren 23an eginiko bilkuran.

Osoko bilkurak ondo ikusi du eginiko proposamena.

7.3. Jose Manuel Etxeitari omenaldia, Mundakan. Idazle honen heriotzaren mendeurrena dela eta, Mundakako Udalak bertako seme ospetsuari omenaldia egingo dio. Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordeak J. M. Etxeita gogora ekartzeko jardunaldia antolatu du, uztailearen 10ean. Era berean, jardunaldiaren aurretik batzordea bilduko da, Juan Tribisarrospe Kultura Etxean. Ondorioz, jardunaldiaren egitaraua banatu da euskaltzainen artean.

7.4. Euskaltzaindiko langileen udako oporrak. E. Osa idazkariordeak adierazi duenez, abuztuaren 2., 3. eta 4. asteetan erakundea itxita egongo da eta langile guztiak oporretan egongo dira. Oporraldia amaituta, abuztuaren 31n irekiko ditu atea Euskararen Akademiak.

8. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:25 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria